

2023 urtariletik
uztailera

PRO GRA MA

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

Okendo, 9



AURKEZPENA

Emakumeen Etxea da gune bat, non emakume ugari eta askotarikoak biltzen garen, prestakuntza jasotzeko eta gogoeta nahiz ekintzak egiteko.

Bertan, zerbitzuak, tailerrak, taldeak eta jarduerak eskaintzen ditugu 2010az geroztik, emakumeen bizi-modua hobetzeko, eta berdintasunean eta feminismoan oinarritutako gizarte bat lortzeko.

Emakumeen elkarte mugimendua eratu da Emakumeen Etxea Elkartearen inguruan; hain zuzen, etxeko jarduerak kudeatzeko eta dinamizatzeko helburuz. Denbora igaro ahala, Elkarteko bazkide aktiboenak batzordeak eta lantaldeak sortzen joan dira, haien interesen arabera. Batzorde bakoitzak bere helburuak ditu, eta bazkideek batzorde guztietan har dezakete parte.



Okendo 9, 20004 Donostia



943 48 34 70



Astelehenetik ostiralera
10:00 - 21:00



info@donostiakoemakumeenetxea.com
berdintasuna@donostia.eus



www.donostiakoemakumeenetxea.com

KONTUAN HARTU BEHARREKO OHARRAK:

- Ikastaroetan **izen ematea urtarilaren 13tik 23ra** arte egingo da. Betetzen ez diren ikastaroen izen-emate epea, ikastaroa hasi arte luzatuko da.
- Izen-ematea Internet bidez egingo da honako web orrialdeetan:
www.donostiakoemakumeenetxea.com
www.donostia.eus/berdintasuna
Laguntza behar baduzu izena emateko, gerturatu zaitez Emakumeen Etxera.
- Ikastaro, zerbitzu eta ekimen guztiak doakoak dira.
- Pertsona bakoitzak gehienez hiru ikastarotan eman ahal izango du izena.
- Zerbitzuetan hartutako hitzorduetara aurrez abisatu gabe joaten ez direnek ezin izango dute zita berririk eskatu, urtebeteko epean.
- Ikastaroa hasi eta gero utzi nahi dutenek, Etxeko koordinatzaileei jakinarazi beharko diete. Hiru saiotan kale egiten duenak -justifikatu gabe-, ezingo du ikastaro gehiagotan parte hartu urtebeteko epean.
- Egoeraren arabera jarduera eta zerbitzu guztiak presentzialak edo on line izan daitezke.
- Zozketa egingo da izena eman dutenen kopurua plaza kopurua baino handiagoa bada. Nolanahi ere, bakoitzari mezu elektronikoko bat iritsiko zaio jakinarazteko plazarik baduen, nola baieztatu behar duen eta, hala badagokio, itxaron-zerrendan zein posiziotan dagoen.

FORMAKUN- TZARAKO BLOKEAK

SAREETAN SARETUTA,
GORPUTZ FEMINISTA,
HAUSNARKETA FEMINISTA,
FEMINISMO DEKOLONIALA.

Gai zehatzak lantzeko guneko trinkoak,
non diskurtsoak sortzen ditugun eta
elkar hartzen dugun, formakuntzen
bitartez elkar ahalduntzeko xedea-
rekin.

PODCAST FEMINISTA BAT EGIN DEZAGUN

(10 saio)

Formatzailea: Ainhoa Vitoria


Eguna: astelehena

Ordua: 18:30 - 20:30

Hasiera: urtarrilak 30

Amaiera: ekainak 12

Hizkuntza: euskara



Podcast bat egiten ikasi nahi duzu? Eta programatutako 10 saioetan Etxean sortu-
tako podcast feminista baten parte izan?
Bi gauza hauetakoren bat interesatzen ba-
zaizu, ez izan zalantzarik, eta, eman izena
tailer honetan!

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

TRATU ONEAN OINARRITUTA MAITATZEA ETA ZAINTZA

(9 saio)

Formatzailea: Kontxi López Soria
(Mara-Mara Elkarte)

Eguna: ostirala

Ordua: 17:00 - 19:00

Hasiera: otsailak 3

Amaiera: ekainak 16

Hizkuntza: gaztelania

Espazio honetan, emakumeen topaketarako eta hausnarketarako talde bat jarriko dugu abian; autoezagutza-lana egingo dugu, gure bizi-kalitatea hobetzeko, zoriontsuago izateko, zoriontasuna politikoa eta kolektiboa ere badelako.

Tratu onerako leku bat eraikiko dugu, geure burua ezagutzeko, geure burua maitatzeko eta onartzeko, geure buruari entzuteko, gure gorputzaren prozesuak (sentsazioak, emozioak, pentsamenduak, portaerak...) ulertzeko, zergatik funtzionatzen dugun funtzionatzen dugun bezala, zer sentitzen dugun eta hori guztia nondik datorren konprenitzeko. Ez ditugu gure beharrak ahaztu behar



Antolatzailea: Berdintasun Saila

BIODANTZA FEMINISTA

(8 saio)

Formatzailea: Belén Olaziregi

Eguna: ostirala

Ordua: 18:30 - 20:30

Hasiera: martxoak 17

Amaiera: ekainak 23

Hizkuntza: euskara

Tailer honetan, Biodantza Feministaren bidez, autoezagutza, norberaren zaintza, autoestimua, plazera, kementa, autoerregulazioa, taldearen babesa, sormena, bizi-poza eta umorea lantzen ikasiko dugu eta baita norberaren beharrak identifikatzen ere. Etorri gorputzetik feminismoa egitera!



* Ahobizi edo Belarriprest bazara ikastaro honetan parte hartu dezakezu, baina euskara ondo ulertu behar duzu ikastaro osoa jarraitu ahal izateko



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

FILOFEMINISTAK: EREDU FILOSOFIKOAK GARAI ATZERA KOIENTZAT

(10 saio)

Formatzailea: Marisa Hurtado
Eguna: asteartea
Ordua: 19:00 - 20:30
Hasiera: urtarrilak 31
Amaiera: ekaina 13
Hizkuntza: gaztelania



Tailer honetan emakume filosofoak age-
rian jarriko ditugu eta, bide batez, filoso-
fatzen eta banakako hausnarketak nahiz
kolektiboak egiten ikasiko dugu. Aurtengo
tailerrean militantzia bikoitza eduki zu-
ten emakume filosofoen ibilbidea egingo
dugu. Eskuinei eta faxismoari aurre egin
zieten hiru emakumerekin hasiko gara,
hain zuzen ere, Aleksandra Kollontai,
Emma Goldman eta Klara Zetkins. Eta
gaur egungo filosofo batekin bukatuko
dugu, hots, Marcia Tiburi-rekin.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

HITZAREN ZUHAITZPEAN: ALIANZAK FEMINISTAK SORTZEN

(6 saioa)

Formatzailea: Jeanne Rolande
Dacogna
Eguna: osteguna
Ordua: 19:00 - 20:30
Hasiera: martxoak 16
Amaiera: maiatzak 25
Hizkuntza: gaztelania

Ikuspuntu dekolonial eta antiarrazista
bidez, aliantzak sortzeko prozesuaren in-
guruko elkarriketarako gonbidapena. Ho-
rretarako, gure esparru teorikoak, prakti-
koak eta pribilegioak berrikusteko bideari
ekingo diogu, ondoren, guztiok bizitzeko
gune feministak sortzeko estrategiak
identifikatzeko, baita agenda inklusiboak
eta eraldatzaileak sortzeko ere.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

XILOGRAFIA (linoleo gainean): SORMENA TAILERRA

(13 saio)

Formatzailea: Oihana Ugarte Iriarte

Eguna: astelehena

Ordua: 18:00 - 20:00

Hasiera: urtarrilak 30

Amaiera: maiatzak 16

Hizkuntza: euskara*

ANTZINAKO TEKNIKA HAU ERABILIKO DUGU SORMENA LANTZEKO.

Guztiok sortzaileak gara egunero, sormenak askatasunaren usaina du. Sentitzen dugun hori bideratzeko, xilografia landuko dugu. Ez dugu marrazten jakin beharrik, bidaia egiteko irrika soilik. Gure eskuek marraztuko dute linoleoan unean sentitzen duguna, eta paperean azalduko da islada, une hortako arnasa. Ezezagunak diren emakume sortzaile guztien omenez. Gu ere hemen gaude: gure ahotsa, nahia, gure eskuetan. Irrifarrez, bidaiatzen.



* Ahobizi edo Belarriprest bazara ikastaro honetan parte hartu dezakezu, baina euskara ondo ulertu behar duzu ikastaro osoa jarraitu ahal izateko

Antolatzailea: Berdintasun Saila

AUTODEFENTSA FEMINISTA TAILERRAK



Ikasi nahi duzu eraso matxistei aurre egiten?

¿Kalean aske sentitu nahi duzu? Uste duzu ezingo zarela defendatu?

Euskaraz (8 orduko saioak)

MARTXOAK 11 / EKAINAK 17

Formatzailea: Emagin

Eguna: larunbata

Ordua: 10:00 - 14:00
15:00 - 19:00

Gaztelaniaz (12 orduko saioak)

MARTXOAK 17 - 18 / EKAINAK 9 - 10

Formatzailea: Isa Bernal

ostirala: 16:00 - 20:00
larunbata: 10:00 - 14:00
15:00 - 19:00

Antolatzailea: Berdintasun Saila

MATRAKA GUNEAK

Gune hauek Irailetik udara arteko luzapena dute.
Ondorengo guneetan oraindik apunta zaitezke:

- “Zahartzeko manierak Euskal Literaturan”
- “Tacitas y revolución” ikastaroa
- “Otras voces” ikastaroa



IRAKURKETA FEMINISTARAKO GUNEAK

Pentsamendu kritiko feminista sortu eta partekatzeako guneak, korrante edo garai anitzeko idazleen irakurketetatik abiatuta.

Talde gehienetan alor zehatzak landuko dira.

ZAHARTZEKO MANERAK EUSKAL LITERATURAN



(izen ematea zabalik)

Formatzailea: Iratxe Retolaza

Eguna: asteartea
hilabetean behin

Ordua: 19:00 - 21:00

Hasiera: urtarrilak 31

Amaiera: ekainak 27

Hizkuntza: euskara

Azken aldian zahartzaroaren eta zahartzeako moduen inguruko literatur lan ugari argitaratu dira, guztietan ere gizarte egiturak eta zaintza sareak hizpide dituztenak. Irakurle talde honetan zahartzeako maneren inguruko literatur lanak izango ditugu hizpide, betiere genero-ikuspegiak zahartzeako modu horiek nola zeharkatzen dituen aztertzeako asmoz. Galdera hauetariko zenbait erantzuten ahaleginduko gara irakurketa-talde honetan: zein zahartzeako manera irudikatu dira euskal literatura garaikidean? Zahartzeako manera horiek zer genero-ikuspegi irudikatu dituzte? Zahartzeako manera horiek irudikatzean, nolako proposamen feministak egin dira? Irakurleok nola eraikitzen dugu geure zahartzeako imajinarioen eta pertsonaiaren zahartzeako moduen arteko harremana?

Antolatzailea: Berdintasun Saila

“TACITAS Y REVOLUCIÓN” IKASTAROA

(izen ematea zabalik)

Formatzailea: Mertxe Tranche
Eguna: asteartea
hilabetean behin
Ordua: 19:00 -21:00
Hasiera: otsailak 7
Amaiera: ekainak 13
Hizkuntza: gaztelania

Badago berezko ezaugarriak dituen emakumeek idatzitako literatura bat. Ingalaterran jaio zen XVIII. mendearen amaieran, eta munstroz, eremu mortuz, eromenaz eta sekretuz elikatu zen teilatupean. Hor daude gakoak ulertzeko bi mendetan emakumeek zergatik idatzi duten horrela. Eta, bidena-bar, ulertzeko zergatik gaur egun ere idazten duten modu horretan.



“OTRAS VOCES” IKASTAROA

(izen ematea zabalik)

Formatzailea: Mertxe Tranche
Eguna: asteartea
hilabetean behin
Ordua: 19:00 -21:00
Hasiera: otsailak 14
Amaiera: ekainak 20
Hizkuntza: gaztelania



Gutako bakoitza munduari buruzko begirada bat gara. Begiratzeko modu asko daude, ikusten dena kontatzeko modu desberdinak dauden bezala. Batzuk gugandik hain urrun daudenez, badi-rudi beste mundu bat dela begiratzen dutena, eta hala izango da segurue-nik. Ikastaro honetan, beste kontinente batzuetako emakumeak ezagutuko ditugu, beste kolore batzuetakoak, beste kezka batzuetakoak, beste begirada eta ahots batzuk dituztenak, ikusten duguna berriro argitzeko gai direnak.

IRAKURLE ESKOLA FEMINISTA

Formatzailea: Iratxe Retolaza

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

“REPUBLICANAS Y ANTIFRANQUISTAS” IKASTAROA

Formatzailea: Mertxe Tranche

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

BATUKADA FEMINISTA

Formatzaileak: Ainara Sarasketa,
Arantxa Vicedo

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

KOROA

Formatzailea: Bettina Aragón

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

KLOWN

Formatzailea: Beatriz Egizabal

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

ANTZERKI LABORATEGI FEMINISTA

Formatzailea: Aitziber Eguskiza

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

FLAMENKO FEMINISTA

Formatzailea: Askoa Etxebarrieta
“La Pulga”

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

XAKE

Formatzaileak: Elisabeth Agirre
Leire Cruz

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

ELKARGUNEAK

Talde hauek ikasturte osoan zehar elkartzen dira eta gehienak irekiak mantentzen dira parte hartzaile berrientzat. Parte hartu nahi baduzu, jarri harremanetan Emakumeen Etxearekin.



NESKA GAZTEENTZAKO JABEKUNTZA GUNEA

Donostiako Emakumeen Etxean neska eta genero anitzeko gazteei zuzendutakoa da. Gune honetan Feminismoarekin, Jabekuntzarekin, Harreman Parekideekin... lotutako gaiak lantzen dira eta Jabekuntza prozesu bat bezala planteatzen da.

Zeini zuzendua?

15 - 20 adin tarteko neska eta genero anitzeko orori.

Nola eman izena?

Astelehenetako Biluzik Zerbitzura hurbilduz, biluzikzerbitzua@hotmail.com helbidera edo [lahia3.0](#) instagrameko kontura idatzi daiteke ere. Donostiako Emakumeen Etxearekin harremanetan ere jarri zaitzke eta zita bat jarriko dugu, zure beharrak eta nahiak ezagutzeko.



INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAREN ALDEKO EMAKUMEAK



Indarkeria matxistari aurre egiten dioten edo aurre egin izan dioten emakumeak taldean elkartzeko gunea.

Astean behin biltzen dira (joatea libre da). Autolaguntza taldea da. Askatze-ko hainbat modu baliatuta, indarkeriari irtenbideak bilatzen laguntzen du. Emakumeek beldurrak, isolamendua, tristeziak eta kulpak partekatzen dituzte haien artean, eta barnean duten indarrarekin konektatzen saiatzen dira, indarkeriarik gabe bizitzen laguntzeko: zer gertatzen zaien jakin, pozarekin konektatu, nork bere gorputza zaindu, desirarekin duten harremana ezagutu eta taldearen laguntza jaso.

JATORRI ASKOTARIKO EMAKUMEENTZAKO KULTURARTEKO GUNEA

Jatorri desberdineko emakumeak taldean egoteko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da), beren bizitzan migrazioa nola bizi duten elkarrekin aztertzeko. Zailtasunetatik ikasten dute eta sozializatzen dituzte banakakoen eta taldearen lorpenak. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta bizi diren hirian gehiago sustraitzeko tresna nahiz baliabideak bereganatzen dituzte; isolamendutik ateratzen dira; euskal gizartea eta jatorrizko gizartea, biak, ezagutzen dituzte; elkarrekin aisialdi, dibertsio eta ezagutza ekintzetan parte hartzen dute.



TALDEKO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA



Talde gune bat, bakarka nahiz gizarte aldetik egoera bereziki zaurgarrian dauden emakumeentzat. Gogoeta egiteko gonbita egiten digun gunea, gure ustez zapaldu egiten gaituen hori komunean jarrita. Eta talde prozesu bat, nortasun tradizional haragitu hori eraldatu eta jaso ditugun kultura-sinesmen, jarrera eta ohituren baliozkotasunari aurre egiteko modua ematen duena, jaso ditugun nortasun eta sinismen horiek ez baitigute uzten gure erabakien jabe izan eta bitzta autonomo eta indarke-riarik gabeari aurre egiten.

DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN AHALDUNTZE TALDEA

Desgaitasuna duten emakumeak elkar-tzeko gunea da, norbere burua ezagutu eta aitortu ahal izateko. Desgaitasuna duten emakumeek bizi duten diskriminazio bikoitzaren egoera aztertzea du xede talde honek, ahultasunari eta desparekotasunari aurre egiteko.

Horretarako ezinbestekoa da beraien eskubideak ezagutzea eta horien gauzatzea sustatzea, norbanako eta taldeko ahal-duntzea lantzeko bidean.



Arreta eta Bideraketa

Informazioa, orientabidea eta harrera Emakumeen Exeko bertako baliabideetara edo kanpokoetara bideratzea.

Egilea:
Emakumeen Etxeko bertako langileak

Astelehenetik ostiralera
10:00 - 21:00
Hitzordurik gabe

Etxeko Langileentzako Aholkularitza

Honako gaien inguruko aholkularitza: eskubideak eta betebeharrak, soldatak, kontratu motak, oporrak, egun eta ordu libreak, kotizazioak, baimenak, kaleratzeak...

Hitzordurekin

Aholkularitza Juridikoa eta Gizarte Esku-Hartzea

Espetxe eta zigor zuzenbidea.
Atzerriartasuna.
Lanerako zuzenbidea.
Genero indarkeria.
Hirugarren adina: erretiroa, pentsioa, alar-guntasuna... Tramiteak egiteko laguntza.

Hitzordurekin

Ordenagailu eta Internet zerbitzua

Asteazken zehar.
Doako erabilera.

Ordutegia:
10:00 - 21:00

ZERBITZUAK

Hitzordua eskatu ahal izango duzue telefono honetan

  **943 48 34 70**

** Zerbitzuetan hartutako hitzorduetara aurrez abisatu gabe joaten ez direnek ezin izango dute zita berririk eskatu urtebeteko epean.*

Laguntza Psikologikoa

Aholkularitza, prebentzioa eta ahal-duntzea helburutzat izanik eta metodologia elkarreragileaz baliatuz, norberaren indarretan oinarritutako baliabideak lortuko dira.

Hitzorduarekin

Lege Aholkularitza

Famili zuzenbidea, lanerako zuzenbidea, atzerriartasuna, genero indarkeria.

Hitzorduarekin

Biluzik Mundura

Sexualitate informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

Hitzorduarekin

Parekatu

Ikasketak eta prestakuntza-ibilbideak homologatzeko aholkularitza.

Hitzorduarekin

Gizarte Aholkularitza

Gizarte laguntzei buruzko informazioa behar duzu? Etxebizitza? Enplegua edo formazioa?

Hitzorduarekin

Entzuteko eta feminismotik jarduteko gunea

Beste norabide bat hartu nahi duten emakumeei zuzendua, eta segurtasun nahiz konfidantzazko gune batean aukerak probatu nahi dituztenentzat.

Hitzorduarekin



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Berdintasuna
igualdad

DONOSTIAKO EMEKUMEEN ETXEA

Okendo kalea,9

